

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
GORKA AZKARATE

Zeanuri (Bizkaia)

**Arratiako bihotzean,
erroten ibilbidea**

Azken hamarkadetan nekazal mundu tradizionalaren gainbeheraren eraginez ehunka errotarrik bira emateari utzi diote. Bada Zeanurin esaera zahar bat, norbaitek lan bat utziagatik lanbideak jarraituko duela adierazteko: “Gu hil eta gero be, zorroak errotara joango dira”. Zeanuriko errotari batek zioen beste esaera bat da, tamalez, denborarekin egia bihurtu dena: “Errotak eurak joango dira gu baino lehenago...”. Izan ere, ez dago egun Zeanurin ogibidez errotaria den inor. Zeanuriko erroten ibilaldiko urrats bakoitzak iragan ez hain urrunera garamatza.

XVIII. mende amaieran sei burdinola eta hamazortzi errota zeuden Zeanurin. XIX.aren bigarren zatian burdinolen beherakadak nekazaritzara bultzatu zuen jende asko, eta horrek uzta oparagoak ekarri zituen ezinbestean. Gorakada horrek, halaber, laboreak ehotzeko erroten premia ekarri zuen eta lehenago burdinola izandakoak errota bilakatu ziren, Zeanuriko Lanbreabe, Ibagutxi, Altziber eta Olabarriekin gertatu moduan.

Gero, XX. mendean, aurrerapen teknologikoen erroten errentagarritasuna kolokan jarri zuten. Duela berrogei urte hamaika errotak ziharduten lanean Zeanurin; 1979an, berriz, hiru geratzen ziren, eta eurentako bik etxerako baino ez zuten egiten lana. Bakarra da gaur egun lan egiten duena, eta bera, iragan dirdiratsuen testigantza historikoa emateko dabil: Olabarriko errota. Beste errota bat ere, Ibagutxikoa, jartzen dute martxan noizik behin.

Zeanuriko errotak hidraulikoak dira eta bertako lau erreka nagusien inguruan eraiki ziren: Arratia erreka (Lanbreabe, Ibagutxi, Alkiber, Errotabarri, Altziber, Olabarri), Beretxikorta erreka (Goiko errota, Erdikoa, Barrengoa eta Undurraga), Uribeko erreka (Atxiti, Intxaurbe, Axpe, Zulaibar) eta Asterriko erreka (Ibare, Landaburu, Akeuri, Uribiarte).

Zeanuritarrek, eta bisitariek, maiztzeke lehen domeka aukeratu ohi dute *Zeanuriko Erroten Ibilaldia* egiteko. Zeanuriko Joko Alai eta Ipizki taldea elkarteek antolatzen dute ibilbidea. Urteko edozein une da aproposa ordea, Barazarren oinean, Bizkaiko txokorik ezkutuenetako bat bisitatzeko. Ondare historiko itzela gordetzen du Zeanurik eta horren lekuko dira ibilaldi honetan ikusiko ditugun hamabi errotak.


Errotari semea errota konpontzen

Fermin Pujanak, Benigno Pujana Olabarriko azken errotari ofiziala

izandakoaren semeak, ez du bakerik izango aitaren errota zaharberritu artean. Olabarrin itzulitxoak egiteko ez dira minutu asko behar. Horregatik, bisitaria nekez izaten da gai Pujanak —erreportaje hasierako argazkian Olabarriko antepararen konporta, edo ponportea, irekitzen— azalpene-

tan txertatu ohi dituen hitz tekniko guztiak bereganatzeko. Mundu propia baita errotena, bere hiztegia ere baduena.

Zeanuriko plazatik bertatik ekin-go diogu ibilbideari. Udaletxe paretik igaro eta Undurraga urtegira darman bideari lotuko gatzazkio, Altzi-



bergo errotaren albotik igaroz. Otsemendiko auzune edo kofradian kokaturik dago 1868ra arte burdinola izandako errota. 1965ean presa apurtu zitzaion arte egin zuen errotariak. Herrigunetik gertuen dagoena da errota hau eta Altzibergo dorretxearen esku izan zen.

Undurragako urtegiko euste hormatik gertu, Errotabarri topatuko dugu. Zeanuriko errotarik berriena da, 1785ean eraiki zuten arren. Hiru harriko mekanismoa baldintza egokietan dago, lanean jartzeko moduan, nahi izatera.

Undurragako urtegia ezkerretatik inguratuko dugu, kilometro gutxiren buruan Arratia erreka urak eragin dako beste errota bi ikuskatzeko: Ibargutxikoa eta Lanbreabekoa.

Ibargutxikoek, argindarra debalde

Ibargutxiko errota ikusgarria Ipiñaburuko kofradian dago. Egun harri bi baditu ere, hirurekin lan egin zuen garai batean; hirugarren harria garagara eta pentsuak ehotzeko erabiltzen zen. 1945ean turbina eta sorgailua jarri zizkioten azpiko aldean, eta 1978ra arte bertatik hartzen zuten argindarra

inguruko baserriek. Guztiz zaharbertuta dago eta garia eta artoa ehotzeaz gain, etxerako argindarra bertan sortzen jarraitzen dute bertakoek.

Arratia errekan gora segi eta Arimkortako mazelen babesean, eta Ion-diagorta urtegiaren, Lanbreabeko errota dago. Hori ere burdinola izan zen errota baino lehen. Eta horri ere sorgailu elektrikoa egokitu zion Joanes Egiluz orduko jabeak, 1920 urtearen bueltan. Etxerako zein kanporako ekoiztu zuen energia Mendizabaleko zentral elektrikoa martxan jarri zen arte. 1975ean gelditu zen betiko.

San Justoko Karobia



Julian Arana, Igor Intxaurrea eta Juan Arana. Karobiko iragana eta oraina elkarlanean.

Otsemendi auzunean dago San Justo karobia, herrigunetik hiru kilometro ingurura, harizti zoragarri batean, Justo eta Pastor santuak eskainitako baselizaren ondoan. Hariztian mahaiz eta erretegiz hornituta dagoen landa eder bat zabaltzen da, iturria ere ez da urruti. Esan liteke, gainera, San Justo ermitatik abiatzen dena dela, ehunka autok itsusturiko Pagomakurreko atsedene gune zalapartatsutik urrun eta haranean dezente beherago, Gorbeko gurutzeta helburu Arratiatik abiatzen den biderik mendizale eta jatorrena. Hala diote, behinik behin, *zeaniztarrek*.

San Justoko karobia bertan behera utzia eta hondatuta egon zen harik

eta, 1996an, Zeanuriko Ipizki Taldeak (www.ipizki.com) karobia berreskuratzeko lanak hasi zituen arte. Abuztuko lehenengo asteburuan piztu ohi dute urtero, han bertan karea azkeneko egin zuen Juan Aranaren zuzendaritzapean.

Otsemendiko Goikuria eta Arana familiak –Kandido eta Felix Goikuria anaiak, bate-tik, eta Juan eta Julian Arana, bestetik– izan ziren 1950ean karobian azkeneko lan egin zutenak. Juan eta Felix labea zaintzeaz

eta karea egiteaz arduratu ohi ziren; Julianek eta Kandidok, berriz, idi parek hartuta kareharria eta egurra garraiatzen zuten bertaraino. Garai hartan Arratiako soroak ongarritzeko erabili ziren 2.000 kintal (100.000 kilo) kare ekoiztu zituzten.

Tipologiari dagokionez, karobi frantzesa da San Justokoa, hau da, malda baliatuz eraikia. Goitik beherako hobi batek zulatzen du malda. San Justoko hobia lau metro luze eta metro eta erdi zabal da goiko aldean, eta behera egin ahala estutuz doa. Azpi-azpian 40 zentimetroko zabalera baino ez du.

Lana egin dezan egurrez bete behar da karobia eta gainean kareharri geruza jarri behar da. Karobia erabat bete

ondoren, beheko zulotik, labe ahotik, su emango zaio. Horrela, erregeia kiskaltzen den neurrian, kareharria erre eta kare bihurtzen da.

Karobiak beheko labe ahotik jaurtitzeko du kare bizi; berau pizturik mantentzeak hainbat lagun beharra eskatzen zuen, sarritan auzolanean egin ohi zen.

Antzinako zibilizazio ugari zuten karearen onuren berri. Egiptoarrek, esaterako, gorpuak baltsamatzeko erabili ohi zuten. Erromatar garaiko eraikuntzetan ere erabiltzen zuten kare ore. K.o. Igo mendekoa den Lodosa-ko akueduktuan, esaterako.

XVII. mendearen erditik aurrera hedatu ziren Euskal Herrian karobiak, artoaren landaketak indarra hartzearekin batera. Erabilera asko du kareak: eraikuntzan lurra eta uraz nahastuz, hormak egiteko mortairua lortzen zen; uraz bakarrik nahastuz, berriz, baserrietako hormak zuritzeko *letxera* deritzen ore; nekazaritzan, soroetako ongarririk gisa eta harren kontrak; abeltzaintzan kortak desinfektatu eta ganaduen apatxetako gaixotasunak sendatzeko; arrautzak kontserbatzeko ere erabiltzen zen...

XX. mendeak aurrera egin ahala ordea, ongarririk kimikoen eta porlanaren industria ekoizpenarekin lehiatu ezinik, karobiak bertan behera uzten hasi ziren, mendearen erdi aldera guztiz desagertu ziren arte. Urtean behin jartzen dute lanean San Justoko karobia, alde guztietatik historia darion herri paregabe honetara gerturatzen diren guztien gozamenerako.



Olabarriko errotapea goian; eskuman, Olabarriko errotako toberak eta harriak.

Lanbreabetik Undurraga urtegira itzuliko gara, bestaldeko erreka bazterretik; urtegiko euste horma baino ehun metro aurrerago dagoen bidegurutzean ezkererantz joko dugu, Otsemendi kofradiarantz. Ortuzar eta Jauregi baserriak atzean utzi eta San Justo baseliza bisitatuko dugu. Bertatik bertara, harizti ederrean, San Justo baselizarekin egingo dugu topo, inguruan mahaia, erretegiak, iturria eta karobi zaharberritua aurkituz.

San Justotik gertu, San Lorentzo ermitan egingo dugu bat ostera ere erroten ibilbidearekin. Hurrena Intxaurbeko errota ezagutuko dugu, Uribeko kofradian. Gero, errepide nagusirantz zuzenduz, Zulaibarkoa dator. 1976an gelditu zen eta etxebizitza izateko birmoldatu dute orain gutxi. Jose Barrenetxea, *Jose Errota*, izan zen bertako azken errotaria.

Areatzarantz zuzentzen den errepidea kilometro batez jarraituz, Karpoko zubia gurutzatu eta Asterriko kofradian sartuko gara; lau errota daude bertan, oso distantzia txikian, eta laurak, tamalez, bertan behera utzita edo hondatuta: Uribiarte, Akauri, Landaburu eta Ibarre.

Olabarri, Pujanatarren bitxia

Zeanuriko Andra Mari parrokia atzean utzita azken kilometroan sartuko gara. Ibilaldia amaitu aurretik, ordea, Iburguen kofradian kokaturiko Olabarriko errota ederra bisitatzeko aukera dugu. Bisita gidatuak ere antolatzen dituzte hemen (tel: 946739327). Arriolatarrena (Zeanuriko patroiak) zen errota, eta Manterola familiak ustiatzen zuen, XIX. mende amaieran Isi-

dro Pujanak bere gain hartu zuen arte. XX. mende erdi aldera, Benigno Pujanak (Isidroren semeak) errota erosi zion Arriola familiari eta ordu-tik Pujanatarren esku egon da.

Badira urte batzuk Fermin Pujana errota zaharberritzen hasi zela eta lan erraldoi horretan dihardu egun, poliki baina etengabe. Hiru harrikoa da errota eta, mineri arrazoiak tarteko, betiko bezeroen eskariak erantzuteko lanean darraien bakarra da. Benigno Pujana desagertu ostean –ogibidez errotari izandako azken zeanuritarra–, bere alaba Ana Marik hartu zuen leku-

koa, tradizioz familiaren langintza izandakoari eusteko.

Olabarrikoa ere burdinola izan zen; horren lekuko bertan gordetzen dituzten ola zaharreko lanabesak. Errotaren alboako burdinolaren hormak ere ari da eraberritzen Fermin Pujana.

Hasitako leku berean amaituko dugu ibilaldia: Zeanuriko erdigunean, Iburguen kofradian. Arratiako bihotzean barrena ibili eta bertako ondare historikoa apur bat ezagutu ostean kosta egingo zaigu orainaldira itzultzea. Baliteke, itzuli nahi ez izatea ere. ■

BEKADUN ENTZAKO DEIALDIA

Kazetaritzaren mundua atsegin baduzu, ARGIAko erredakzioan ikas dezakezu

Komunikazio arloko edo kazetaritzako 3. edo 4. mailako ikaslea bazara, ARGIAk erredakzio lanetan bekadun moduan aritzeko aukera ematen dizu.

Eskaintzen dizuguna:

- Euskarazko kazetaritza edukietan trebatzea.
- Teknologia berrietan eta Interneten aritzea.
- Lan-talde gazte batekin lanean aritzea.

Gurekin lanean aritu nahi baduzu, bidali zure datuak "Erredaktore-bekaduna" erreferentzia adieraziz:

142 Posta Kutxa
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
curriculum@argia.com

